



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2021eko irailaren 7ko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2021eko irailaren zazpian, zortzi eta erdietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

**Hor zirenak** : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Barkatuak zirenak** : GOICOECHEA Iñaki

**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : LEKUMBERRY Xantxo

**Deialdiaren eguna** : 2021eko irailaren 3a

**Afitxatze eguna** : 2021eko irailaren 3a

## 2.ERABAKIA : KONTSEILARI BATEK AITZINATU DIRUAREN ORDAINTZEA

Nomenklatura : 5.6

Jaun Auzapezak zehazten du entzulegoari kontseilari batek jatekoa erosi duela herriaren kondu herriko besteen kariatara.

Seinalatzen du , bere dirutik pagatu duela faktura bat 49,09€rokoa.

Proposatzen du Herriko Kontseiluari kontseilariaren ordaintzea erakutsi eta pagatu duen fakturaren heinean.

Herriko Kontseiluak, Auzapezaren azalpenak entzun eta deliberatu ondoren,  
Kontseiluko gelatik atera ondoan,

ERABAKITZEN DU, , 49,09€ ordaintzea herriaren kondu erosi duen jatekoarentzat.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balizko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0  
ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineke egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2021eko irailaren 7an  
Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2021/09/14an publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2021/09/14an.

